

EGIN DUGU! EGIN DUGU!

Martín Zabaleta

Ginebrinoen Espoia atzean utzi genuen. Lorente, gurekin zihoazten hiru sherpatarrak eta ni oso gustora gindoazen goraka giro onean: zerua oskarbi, hotz handirik ez eta haizea geldi. Egoera honek itxaropentsu jartzen ginduen hurrengo egunerako. Iluntzean iritxi ginen Ego Lepora edo Collado Sur era. Handik panorama ikusga-

La tarde era tranquila. No hacía apenas viento, ni demasiado frío y la ascensión hasta el Collado Sur había resultado agradable. Bajo las luces del atardecer, aquel lugar del que tanto había oído hablar, tenía un aire apacible y tranquilo.

ria begiztatzeko zen. Ikusgarriegia, benetan, hitze azaltzeko. Hura zen haraino ailegaten nintzen lehengo aldia eta oso inpresio ona egin zidan: oxigeno-botilak, beste expeditiotako kolore askotako botilak zerura begira; elurraren artean eta arratsaldeko gorriturik, kanposantu baten irudia gelditu zitzaidan hartaz buruan.

Berehala hasi ginen afaria prestazen. Bitartean, Lorente hango alderdietako filmazioak hartzen aritu zen. Seirak izango ziren dendetan sartu ginenean: Lorente eta Pasang Tenba batean eta, oxigenoko-botilak bostgarren kanpamenturaino eramaten

Para las seis de la tarde estábamos ya dentro de las tiendas, donde iban a continuar los preparativos para el día siguiente: fundir nieve, revisar las botellas de oxígeno, etc... Era la primera vez que alcanzaba los ocho mil metros y hasta entonces no había usado oxígeno en ningún momento del desarrollo de la expedición, pero sentía el cuerpo fuerte. El apetito no me faltaba y comí de buen grado las alubias con carne de cabrito que prepararon los sherpas. El parte de radio Nepal había anunciado buen tiempo para el día siguiente y bajo esta esperanza nos metimos al saco sobre las diez de la noche.

lagunduko gintuzten beste bi sherpatarrak eta ni bestean. Barruan prestaketak antolatzen jarraitu genuen: elurra urtu eta oxigeno-botilak konprobatu. Hain zuzen, batzuek haizea galtzen zutelako konturatu nintzen eta nahiko denbora eman nuen arazo horiek konpontzen.

Hamarrak aldean lan hauekin bukatu nuenean, afaldu egin genuen. Zortzi mila metroan ez dela jateko gogorik eukitzen esan ohi da, baina nik behintzat gogoz hartu nuen sherpatarrek prestatu zuten janaria: igazko aleman expeditioak utzitako babarrun pote berak eraman zuten antxume haregia nahastuta. Egia esan, nahiz eta altura handian egon, gorputza oso ondo sentitzen nuen, momentu hartaraino oxigenorik ez nuela erabili kontutan hartuz gero.

Tarteka Lorente eta biok elkarrekin harremanetan jartzen ginen denda batetik bestera radiotelefonoen bitartez. Aldi berean beheko kanpamentuetan erne zeuden, zer gertatzen zen eta nolako giroa geneukan han goian jakin nahiz, eta sarritan deitzen zuten. Nepaleko irratia eguraldi ona egingo zuela esan omen zuela jakinerazi ziguten eta gurekin egongo zirela gau hartan lorik egin gabe animoak emateko. Gauza berdintsu komentatu ziguten Base Aurreraturik ere. Denok geunden erne hurrengo egunaren zai.

GOIZEKO HIRURAK: GAILURRERARUNTZ

Prestaketak bukatu ondoren, une batez etzun egin nintzen, baina ez nuen lorik hartu. Hamaika t'erdietan berriro zutik geunden eta sherpatarrek tea eta bere «tsampa» prestatzen hasi ziren, beti bezala, oso astiro. Guk ere gailetak, sopa eta tea hartu genuen. Berehala hasi ziren beheko kanpamentuetatik deika, zer moduz geunden jakin nahiz. Bitartean guk ba genituen nahiko lanak: erropak jantzi, neoprenoak

No podía dormir y a eso de las once y media estábamos de nuevo en pie. Con el ritmo pausado que los sherpas imponen a cuanto hacen, comenzamos a vestirnos y a preparar el desayuno: los sherpas, té y «tsampa»; nosotros, también té, galletas y un poco de sopa.

ipini, traste guztiak ondo jarri eta abar, baina den dena oso lasai. Hainbeste denbora itxaron ondoren, momentu haiek, gailurra hain hurbil sentitzen zenean, oso gauza handia ziren neretzat. Gogo biziak nituen kanpora atera eta ibiltzen hasteko,

bainan sherpatarrek ez dute presarik eza gutzen eta bere pausora ibili beste erremediarik ez dago.

Ordu biak aldean atera ginen kanpora. Hotz handia somatzen zen. Zerua garbi zegoen eta gau polita geneukan gure gainean. Oraindik ia beste ordu bete eman behar genuen kranpoiak jartzen eta lehen-

Bajo un intenso frío, a las dos de la madrugada salíamos fuera de las tiendas, pero todavía tardaríamos algún tiempo en iniciar la ascensión. Por dentro ardía en deseos de lanzarme hacia arriba, pero el ponerse unos crampones u organizar las cuerdas endurecidas por el hielo es una tarea lenta y pesada en estas circunstancias. Por fin, a las tres de la madrugada iniciábamos la subida. El momento tan ansiado había llegado. El Everest nos esperaba.

go atakean erabili zituzten sokak prestazen: makilak balira bezala zeuden gogortuak. Hura ere bai antolatu genuen mada-rikazio batzuk bota ondoren eta hiruretan abiatu ginen gorantz. Everesteko tontorra zai geneukan.

Ez genituen berrehun metro ibili Lorentek zineko makina ahaztu egin zitzaiola esan zidanean, eta berriro buelta eman genuen. Baina kanpamentura iritsi gine- nean makina motxila barruan zeukala konturatu zen. Kasua ez da arraroa: nerbiosismoak eta altura sortarazten dituzte horrelako arazoak.

AGUR TRISTE BAT

Berriro aurrera, berriro goraka. Nik ez nuen uste hain azkar nindoanik, baina besteek mantxoago joateko esaten zidaten. Lorente pixka bat nekatuta zihoala somatzen nuen. Gau txarra pasa zuela esan zidan eta alturak neke handia eman ziola. Bost t'erdia izango ziren oso gaizki zihoala eta buelta emango zuela esan zidanean. Hau entzuteak pena handia eman zidan, ba baitnekien ilusio handia zeukala Juan Ignaziok Everestean gailurra arrapatzeko. Ni, gainera gustora nengoen berarekin. Beste

La claridad del amanecer iluminaba ya las cumbres del Makalu, del Lhotse y de muchas otras menores, cuando Lorente decidía abando-

nar el intento y retornar al Collado Sur. No se encontraba bien de fuerzas y prefería no retrasar más nuestra marcha. La despedida fue triste porque yo iba a gusto con él de compañero y por otra parte sabía de sus grandes ilusiones por alcanzar la cumbre.

edozeinekin baino gustorago agian, baina ezin zuen iharraitu. Momentu hartan, hain zuzen, nere botila oxigenoa galtzen ari zela konturatu zen bera. Horrelako arazoak normalak ziren, seguraski balbuletan jela itsatsia gelditzen zelako edo. Horrela Juan Ignaziok bere aparatoa utzi zidan, eta elkarren motxila, zine aparatoa, ikurrin eta abarren trukea egin genuen.

Agurtzerakoan ia indartsu nenbilen galdetu zidan. Nik baietz esan nion. Berriz, ia lortuko al nuen. Saiatuko nintzela erantzun nien. Azkenean, kontu handiz ibiltzeko kontseilua eman zidan.

Hola banatu ginen eta nik goruntz iharraitu nuen hiru sherpatarrekin. Bi edo hiru aldiz atzerantz begiratu nuen eta oso pena handia eman zidan Lorente han uzteak. Eserita zegoen gorantz begira. Bai oso triste gelditzen zela, somatzen zen, gauz handiren bat galdu balu bezala. Ordurako eguna zabaltzen hasia zegoen. Oso argi politez ikusten ziran Makalu, Lhotse eta beste gailur batzuk. Inguru denak zedukan ikusgarriko handitasun bat.

ELURRA...

Zortzi mila eta hirurehun metrotik gora elurra gehitzen hasi zen. Bigun biguna zegoen eta pausoa ematerakoan oina beheraka zihoan, igokera oso neketsua igitzen. Gauzak horrela ikusi nituenean zera esan nien gurekin oxigeno-botilak eramaten zetozen bi sherpatarrei: berek iriki zezatela bidea; alegia, guk goraino joan behar genuela eta berek, berriz, bostgarren kanpamentuan buelta emango zutelako. Bainan ez zuten nahi izan eta Pasang Tenba eta biok jarraitu behar izan genuen bidea zabaltzen.

Bostgarren kanpamentura iritsi ginenean espero ez genuen oztopo bat agertu zitizun: ez genuen dendarik aurkitzen. Radio-telefonoa hartu eta Garayoari deitu genion denda non ezarri zuen jakiteko. Bere azalpenei esker aurkitu genuen dendatxoa, elurrez estalita eta punta bakarrik bistan

Sobre las siete de la mañana alcanzábamos el Campo V, pero nos costó casi una hora localizar la tienda, que estaba completamente cubierta de nieve. Allí los dos sherpas que habían subido las botellas de oxígeno llenas, retornaron de nuevo al Collado Sur, mientras Pasang Tenba y yo continuábamos hacia la cumbre.

zuelarik. Han aldatu genituen sherpatarrek igo zituzten botila osoak eta Pasang eta biok erabiliak beraiei utzi genizkien jaitsi zituzten. Momentu hartan zortzi mila eta laurehun metroan geunden eta bost ordu



Foto Martin Zabaleta

El Collado Sur tranquilo como un cementerio, pero lleno de basura.



Foto Martin Zabaleta

Llegando a la Cima Sur a la una del mediodía de aquel 14 de mayo.

emanak geuzkan Hegoko Lepotik laurehun metroko desnibela menperatzeko. Beheko kanpamentuetatik orduaren aldetik ondo gindoazela esatzen ziguten irratiz; baina kontutan hartu behar zen, oso goiz hasi ginelako genbiltzala ondo, beste espedizioekin konparatuz. Egina geneukan bidea oso astuna izan zen eta banekien handik gorago ere berdintsua izango zela.

Denbora galdu gabe, Hego Gailurretik datorren aristan sartu ginen Pasang Tenba eta biok. Han ere elurra nahiko biguna aurkitu genuen, Tibet nahiz Nepal aldera jo, belaunetaraino eta batzuetan barrurago sartzen ginen. Bitartean lainoa poliki poliki paisajea ezkatuz hasi zen eta handik gora ez genuen ezer ikusiko. Horrela hasi ginen Ego Gailurraino dihoan azkene-

ko malda igotzen. Elurak beherantz egiten zuen, bidea oso arriskutsua bihurtuz, eta guk ahaleginak egiten genituen harkaitzetatik joateko segurtasun pixka baten bila.

HEGO GAILURREAN: AURRERA

Hego gailurra zanpatu genuenean ordu bata pasata zegoen. Atzean gelditzen zen zatinik gogorra. Hotza ez zen handia eta haize gogorrik ere ez zebilen. Handik lehen-dabizikoz ikusi genduen hain urrutitik bila etorri ginen helburua: arista zorrotz baten gainean Everesteko tontorra azaltzen zitzaigun. Hura ikustean Pasang Tenba beldurtu egin zen baina konbentzitu nuen aurrera jarraitzeko. Bitartean beheko kanpamentuetatik animoak bidaltzen zizkigu-



Pasang Temba sujetando el piolet en el que ondean la ikurriña y la bandera nepalesa, apoyándolo en el trípode que plantó la expedición china de 1975. La foto está sacada de la secuencia en 16 mm. que Martín filmó en la cumbre.

La nieve blanda nos cubría por encima de la rodilla haciendo la marcha lenta y pesada. Cuando llegamos a la Cima Sur era la una de la tarde y por primera vez aparecía ante nosotros la cumbre del Everest rematando una afilada arista de nieve, en la que el viento había tallado enormes cornisas.

ten irratiz: «Aupa, bertan zaudete. Aurrrera».

Konprobatu nuen zenbat oxigeno gelditzen zitzaigun: berrogeitasei litro besterik ez. Konturatu nintzen ez genuela erreserbarik edukiko beherako eta beharbada doidoi gailurra arapatzeko. Bainan ez nintzen arduratu. Konfiantza neukan guregan eta ez nuen inoiz zalantzan jarri jarraipena. Ni indartsu sentitzen nintzen eta sherpatarrak ere ondo zihoala zirudien. Haindik, gaua pasatzeko moduko zulo batzuk ikusi nituen. Gero, etorkeran, erreferentzia hura oso inportantea izango zitzaigun.

Berehela abiatu ginen gailur arista edo «arista cimera» deritzona egitera. Pixkanaka aurrera gindoazen kontuz ibiliz, kornisak oso handiak eta aereak ziren eta. Horrela iritsi ginen Everesteko eskaladan izaten den azkeneko oztopora: Hillary Espoioia deritzona. Hau elur bigunez estalitako zortzi metroko horma bertikal samarra da. Berrero sherpatarrak buelta eman nahi izan zuen eta berrero ni saiatu nintzen gailurra bertan geneukala konbenzitzen. Egia esan igokera oso arriskutsua zegoen eta lan gaitza egin behar genuen elurra kentzen, lur gogorra bilatu arte.

Ez geneukan soka fijoarik jartzeko eta elkar aseguratzuz konpondu ginen. Handik aurrera problemarik ez zegoela banekien, eta horma menperatu nuenean segur nengo tontorrera iritsiko nintzela.

ARRATSALDEKO HIRU T'ERDIAK: EGIN DUGU!

Espoioia pasa ondoren arista etzan egi-

ten zen eta bidea erraztu. Hiru t'erdiak izango ziren. Begiak gorantz jaso eta gauza beltz bat ikusi nuen elur tontorrean. Nere buruari esan nion «hori duk tripodea». Pasang Tenba pixka bat aurrerago zihoan eta berak ere ikusi zuen txinoen sinalea. Poz pozik, korrika egin zituen azkeneko me-

Tras superar el espelón Hillary, peligroso por estar cubierto de una espesa capa de nieve reciente, sabía que teníamos la cima al alcance de la mano. Alcé la vista y sobre la cresta de nieve vi una cosa negra. Aquello no podía ser más que el trípode chino. Estábamos en la cumbre.

troak. Karrasika, tripodea bere besoekin zuen besarkada bat eman: «Egin dugu!, egin dugu!», oihukatzen zuelarik. Segituan, ni ere iritxi nintzen tontorrera. Pasang Tenba eta biok besarkada batean lotu ginen. Bai berak eta bai nik oso gutxi genekien ingelesez, bainan momentu batzuetan ez da hitz askoren beharrik sentimentuak adierazteko.

Zer sentitzen nuen barruan? Poza; bai, poz handia gainera, bainan beste alde batetik alturak asko moteltzen du burua eta ez duzu oso garbi pentsatzen. Dena dela, beste gailur batzuetan sentitu ditudan bezelako sensazioak somatzen nituela momentu hartan esango nuke; horretaz gainera kasu honetan besteei lortu genuela jakinarazteko gogo biziak.

Deitu nuenean poz pozik jarri ziren denak. Radiotelefonotik sentitzen nituen berorien bullak. Pertsonalki oso emozionantzaz izan zen nere anaia Jon jarri zenean. Pasang Tenbak ere hitz egin zuen bere sirdarekin. Komunikazioak oso garbi hartzen genituen.

Hiru ordu laurdenen bat genuen tontorrean lasaitzen eta zinea ateratzen. Dana lainotuta zegoen eta ez zen paisajerik ikusten. Sherpa bai ikurriñarekin eta bai bere banderarekin ere atera nuen. Bainan laster

hasi ziren behekoak berandu genbiltzala arduratzen eta beheraka jo behar genuela lehenbailen esan zidaten. Hola egin ge-

Eran las tres y media de la tarde. Pasang Tenba y yo nos abrazamos emocionados. Sentía una alegría similar a la experimentada en otras cumbres que había ascendido antes. Llamé al Campo Base para comunicarles la noticia y a través del radioteléfono podía escuchar los gritos de alegría y ánimo de mis compañeros. Tras permanecer tres cuartos de hora en la cima iniciamos el descenso.

nuen eta lasai lasai hasi ginen jaisten, bainan Hillary Espoioira iritsi baino lehen sherpatarra malda batetan irristatu eta harkaitz baten kontra joan zen. Altxatu zenean oso nekatuta zegoen eta guztiz urduri jarri zen. Begiratu nion oxigenoa eta jadanik bukatuta zedukan eta kendu nion alferrik zeraman botila. Nerea ere laster bukatuko zen.

OXIGENORIK GABE

Espoioia ondo pasa eta Hego gailurra-rantz abiatu ginen. Tartean gelditzen zitzaigun zati arriskutsuena eta Pasang Tenba oso nekatuta eta urduri zihoala ikusten nuenez, estu-estu hartuta neraman. Hola gindoazen bapatean bulla bat aditu nuenean, eta sokak tiradizo bat eman zidan. Nik bi piolet neramatzan, bigarrena bidean hartuta, eta oso ondo etorri zitzaidan momentu hartan: batez ni neu aseguratu nintzen eta besteaz Pasang Tenba zegoen lekura hurbildu. Pixkanaka igo nuen, berak ere laguntzen zuelarik, eta aristan aurkitu zenean berrero etzan egin zen. Momentu hartan ezertarako ez zen gauza. Ordu erdi bat pasa zuen lasaitzen saiatur, bainan ez zen errekupepatzen. Nik zera esaten nion, ilundu baino lehen irten behar ginela handik eta berrero bidean jarri ginen. Berak esaten zidan han bertan gelditzeko gaua pasatzera; nik berriz nahiago nuen pixka bat beherago joan eta goizean ikusi nituen



Martin y Pasang a su llegada al Campo Base terminando su penoso descenso.

zuloetan sartu, elurretik eta haizetik hobeto gordeko bait ginen han.

Ilundu egin zuen eta nere barruan bueltaka nembilzkien beste expeditioek horrelako kasuetan pasatu zituzten gorabeherak. Banekien altura horretan bibac bat egitea oso arriskutsua zela: hotza, berrogei gradukoa izaten omen zela eta batzuek behatzak eta hatzamarrak galdu zituztela edo baita han bertan gelditu zirela ere. Baina nik handikan ondo aterako ginaren konfiantza handia neukan. Ez nuen behin ere pentsatu ezer txarra gertatuko zitzaizkidanik.

GAU ILUN LUZE BAT

Gauetz eta linternaz hasi ginen Hego Gailurra igotzen. Berrogei metro haiek oso gogorak egin zitzaizkigun. Zazpi t'erdiak aldean linternaren argiaz zulo haik aurkitu

Poco después de rebasar el espólón Hillary escuché un grito y la cuerda dio un fuerte tirón: Pasang Tenba había resbalado por la ladera, quedando retenido por la cuerda. Tras los esfuerzos de los dos, cuando pudo por fin poner de nuevo su pie en la arista, el sherpa estaba agotado y muy nervioso. Hacía rato que ya no teníamos oxígeno y la luz del día comenzaba a declinar.

nituen eta barrura sartu ginen. Kanpoan elurra ari zuen. Bereala jarri nintzen behetakoekin harremanetan egoeraren berri jakin arazteko. Esan nien lasai egoteko, gu lasai geundela eta hurrengo egunean jaitsiko ginela. Bi sherpatar bidaliko zizkigutela goiz goizean laguntzeko esan zidaten haiek. Bizi bizi errekomendatu zidaten ez lorik egiteko eta behatzak mugitzeko.

Hola hasi zan nere bizitzako gaurik luzeena. Denbora oso astiro igarotzen zen. Behin eta berriro begiratzen nuen erlojura, eguna etorri bitartean zenbat ordu falta ziren kontuak eginaz. Radiotelefonotik ezin nuen hitzik egin, jelatuta gelditu baitzen eta horregatik plumifero barruan sartu

nuen goizerako berozearren. Behetako oso arduratuta pasa zuten gau osoa, gero jakin nuenez. Nere anaiari sedante bat eman

Bajo la luz de las linternas llegábamos de nuevo a la Cima Sur. Nevaba con fuerza y todo nuestro afán era encontrar las grietas que había visto a la mañana para poder vivaquear. Cuando pudimos meternos en ellas comuniqué nuestra situación a los compañeros. No teníamos oxígeno, comida ni agua, y tampoco saco de dormir. Sabía las consecuencias que habían tenido otros vivacs en parecidas circunstancias, pero tenía plena confianza en superar aquella noche.

behar izan zioten lo egiteko. Nik, berriz, ez neukan preokupaziorik. Ez nuen ezartan pentsatzen. Lasai nengoen. Bitartean, Pasang Tenga etzan eta lo zegoen nere gainean, baina bere pisuak nere zirkulazioa moztu zidan eta hankak txingorrituta gelditzen zitzaizkidan. Horregatik, gainetik kentzen nuenean kejavu egiten zitzaidan apur bat. Tarteka altxa egiten nintzen, gogortuta geldi ez nendin. Bitartean, kanpoan elurra geratu zen eta zerua izartuta ikusten zen berriro.

NEKEA...

Goizeko lehen argitasuna hasi zenean altxatu nintzen, baina zorabikoak hartu nituen. Ez zen arraroa. Bezperatik oxigenorik gabe geuden eta «txupetea» ez genuelarik asko sentitzen zen altura hartan. Beste aldetik kontutan hartu behar da sortzi litro ur behar dugula egunero deshidra-

El tiempo transcurría con increíble lentitud. Una y otra vez miraba al reloj contando las horas que faltaban para el amanecer. Movía constantemente los dedos de pies y manos para combatir el terrible frío que hacía. Mientras tanto, Pasang Tenba dormitaba acurrucado junto a mí. Fuera había dejado de nevar y el cielo aparecía de nuevo despejado.

tazioa konpentsatzeko, zendagailuek diotenez; eta guk ez genuen ezertxo ere edan.

Gainera, ez janaririk eta ez zakurik ere gaua pasatzeko. Dana dala, behatzak eta hatzamarrak ondo sentitzen nituen eta horretatik ez nuen uste problemarik eukiko nuenik. Haizea indartsua edo eguraldia txarra izan balira, gauzak askoz gogorra- goak izan zitezkeen. Hortan suerte handia izan genuen.

Radiotelefonoa, nere gorputzaren beroaz epelduta, ondo zebilen eta haren bitartez Garayoak handik bereala mugitzeko esan zidan. Holaz denon animoaz eta bi sherpatar gure bila zetozela jakinaz, zortzirak aldean hasi ginen berriro beharuntz.

Lehenengo pausoetan gorputza oso motel zihuan, baina jaisteko gendukan go-goaz hankak arintzen zihozten beharuntz gindoazen eran. Horrela jarraitu genuen goiz osoan gure bila zetozen bi sherpatarrak ikusi arte. Nik bertan itzarotea pentsatu nuen, baina haiek ere berdin pentsatuko zuten zirudienez eta eseri egiten ziren gu geratzen ginenean. Horrela gau-

Con la primera claridad del nuevo día reanudamos el descenso, con la esperanza de encontrarnos con los dos sherpas que habían partido desde el Collado Sur en nuestra ayuda. Sentía bien los pies y las manos y confiaba en no tener problemas de congelaciones, pero el cansancio y la falta de oxígeno hacían que marcháramos muy lentamente.

zak, beren bila joatea erabaki genuen, jolasten ibili gabe. Elkartu ginenean poztasun handia hartu genuen. Te pixka bat eman ziguten eta oso gustora genuen. Oxigeno berria ere ekarri ziguten eta horrela beste alibio bat sumatzen genuen. Indar ikaragarria ematen du horrek. Horrela abiatu ginen beharuntz berriro. Hirurak ziren eta oraindik zortzi mila eta bost ehun metrotan geunden.

ETXEAN BEZALA

Bostgarren kanpamentura irixterekoan beste the bat prestatu eta Hego Lepo al-



Foto Emilio Hernandez

El íntimo homenaje que se les dispensó en el Campo Base. El decorado de la «txozna» es obra de Jon Zabaleta, a la derecha en la fotografía.

dera jo genuen. Han zeuden dendak ikusi nituenean lasaitu egin nintzen, baina zortzi mila eta hirurehun metrotik pasa baino lehen, oxigenoa bukatu egin zitzaigun eta berriro nere martxa nahikoa moteldu zen. Pasang Tenbak berriz, pozak edo ez dakit zerek eraginik hobeto errekuperatu zen eta ia korrika joan hahi zuen. Sokatik tiraka eta tiraka, oztopo handia sortzen zidan. Zati hartan ez zegoen arriskurik, bidea agina zeukaten gure aurretik jaitsi ziren sherpatarrek eta. Azkenean askatu egin nion soka eta bakarrik joan zen aurretik. Gero jakin nuen Lorentek izugarrizko sustoa hartu zuela Pasang bakarrik jaisten ikusi zue-nean, okerreren bat gertatu zitzaidala pentsatuz.

Bainan ez nuen denbora asko pasa bakarrik. Beste sherpa bat etorri zen nere bila eta poz handia eman zidan nor zen ikusi nuenean: Ning Tenba, oso laguna nuen Annapurna IV ko expeditiotik. Biok elkarrekin egin genuen faltatzen zen bidea; eta azkenik, ateraginetik berrogei ordutara iritsi nintzen Hego Lepora. Behin ere ez nintzen sentitu hain nekatuta, eta

La alegría fue grande al encontrarnos con los dos sherpas. Un poco de té y, sobre todo, el oxígeno que trajeron nos renovaba notablemente fuerzas y ánimo. En el Campo V los sherpas nos prepararon de nuevo té. Eran las tres de la tarde y todavía estábamos a 8.500 metros. Poco después la reserva de oxígeno volvería a agotarse y el descenso se convertiría de nuevo en una penosa prueba.

hainbeste gorabehera pasa ondoren Lorentekin elkartzeak oso emozio handia eman zidan. Beharbada tontorrean baino sakinagoa. Zortzi mila metrotan nengoan, baino etxean bezala sentitzen nintzen: sherpatarrek hartu ninduten eta botak, neoprenoak eta traste guztiak kendu, te eman... Erregeak bezala.

ABALANTXA!

Lo oso ondo egin nuen oxigenoa hartuz gau osoan eta goizean Lhotseko Horma deritzonetik beherantz hasi ginen problemarik gabe. Hirugarren kanpamenturantz. Han Xabier Erro eta Felipe Uriartekin elkartu ginen eta berriro besarkadak, negarrak ezan genituen. Ordu bata aldean bigarren kanpamenturantz jaisten ari gine-nean gure atzetik abalantxa handi bat ikusi genuen Lhotse Hormatik beheraka. Ni alde

Sobre las siete de la tarde, casi cuarenta horas después de nuestra partida, volviamos el Collado Sur. Allí el encuentro con Lorente fue de una gran emoción. Quizás más intensa que la sentida en la misma cumbre. Ayudado por los sherpas me fui desprendiendo del equipo. Nunca antes había sentido una fatiga tan grande.

egin nahiean horrika hasi nintzen bainan gorputza oso ahulduta neukan oraindik eta zerraldo erori nintzen lurrera. Pentsatu nuen: Zanpatu ba gaitu, zanpatuta. Zorri- nez han oso zulo handiak daude eta elur guztia halako batetan geratu zen. Gu hautsak bakarrik harrapatu gintuen. Ez zuen hainbeste suerte eduki katalanen expeditzioko sherpatar batek. Abalantxak aurretik eraman zuen eta oso kezkatuak iritsi ginen bigarren kanpamentura edo Base Aurreratu ere deritzanera. Han ere konturatu ziren zer gertatzen zenaz eta berehaka abiatu ziren sherpatarren bila. Beranduago ekarri zuten gizajoa, baina ez zegoen ezer egiterik. Handik bi egunero hil zen.

Hurrengo egunean gure expeziorekin zer egin erabaki behar zen: jarraitu edo trasteak bildu eta etxera bueltatu. Gure sherpatarrek bezperako istripua ikusi ondoren ez zeukaten lanean jarraitzeko gogorik. Gailurra egina zegoen eta beren pentsakeraz expeditzioa amaituta zegoen. Dudarik gabe, penaz hartu zuten erabakia oraindik tontorra egiteko asmoz zeudenean, bainan

Tras una noche tranquila, a la mañana siguiente abandonábamos el Collado Sur, iniciando el descenso hacia la Pared del Lhotse. En el Campo III, Felipe Uriarte y Xabier Erro nos esperaban. Nuevos abrazos y lágrimas emocionadas. Los problemas parecían haber terminado, cuando una gran avalancha barrió la pared del Lhotse, estando a punto de alcanzarnos. Un sherpa de la expedición catalana tuvo menos fortuna y fue arrastrado por el alud. Aunque pudo ser rescatado, sus graves heridas le llevarían a la muerte dos días más tarde.

Hego Lepoan ez zen oxigenorik gelditzen eta Everest zegoen moduan, ez zegoen zer eginik oxigenorik gabe. Elur handi haietan oxigenoaz ere nahiko neketsua izango bitzateke. Nik uste dut egin daitekela oxigenorik gabe ere, lehenagotik guk pentsatzen genuen moduan, bainan ez aurtzen.


Jelazko Kaskadan zehar Kanpo Baserantz jaitsi ginen. Lagunekin eta anaiarekin ere elkartzeko gogo handiak nituen. Iritsi nintzenez lehenengo lehenengoa nere anaia Jon ikusi nuen gure bila zetorrela. Oso

La oposición de los sherpas a continuar con los trabajos de aprovisionamiento de los campos de altura ponía un fin obligado a la expedición. Para ellos el objetivo estaba cumplido, pero con la decisión quedaban frustrados los deseos de varios compañeros por intentar también alcanzar el Everest.

emozionantea izan zen neretzat une hura. Bere laguntasuna hurbil sentitzeak indar handia eman zidan momentu txarretan.

Azkenean Campo Basen nengoan berriro ere, anaiarekin, lagunekin. Han goian gelditzen zen Everesteko gailurra beste mendigoizaleen ilusioien zain. Neregan neramatzan betirako bere tontorrean bizi izan nituen esperentziak, bainan barru barruan, sendoago errotuta gelditzen ziren gau luze ilun hartan munduko mendi altuenaren barkardadean pasa nituen orduak.

Estaba ansioso por regresar al Campo Base; por sentirme de nuevo junto a mis compañeros, junto a mi hermano, cuya presencia tanto me había alentado en los momentos difíciles. Atrás quedaba el Everest esperando acoger las ilusiones de otros alpinistas. En mi interior llevaba para siempre las intensas sensaciones vividas en la ascensión y en su cumbre, pero a nivel personal, quizás más hondamente grabadas quedaban aquellas horas pasadas en una noche de vivac larga y oscura entre las soledades del Chomolungma.



2/29/87